



EZEIZABARRENA SÁENZ, Xabier

Euskal Herria kalea 12
20003 Donostia
xabier_ezeizabarrena@donostia.org

BIBLID [1137-1951 (2004), 13; 41-48]

Sarrera eguna: 2004.09.13
Onarpen eguna: 2004.12.09

Euskal Eskubide Historikoak eta Europar Batasuna

(Historical Rights of the Basque Country and Navarre at the
European Union)

Europar Batasunean egokitzeko zailak diren erronkei egin behar diete aurre Euskadik eta Nafarroak, bide eskasak baitituzte beren Eskubide Historikoen defentsan parte hartzeko. Eskubide Historikoak Estatuaren aurrean erabiltzen dira, Estatuak Konstituzioan bertan onartu eta aitortzen dituelako, eta Europar Batasunaren aurrean ere erabili beharko lirateke, Estatuak Konstituzioan Europar Batasunaren beraren aurrean ere aintzatetsi dituelako.

Giltza hitzak: Eskubide Historikoak. Espainiar Konstituzioa. Europar Batasuna.

Euskadi y Navarra se enfrentan a retos de difícil encaje jurídico en la Unión Europea, en virtud de sus escasas vías de participación para la defensa de sus Derechos Históricos. Los Derechos Históricos se ejercen y esgrimen frente al Estado porque éste los reconoce y asume constitucionalmente, y también debieran ejercerse frente a la UE, pues el mismo Estado los ha reconocido constitucionalmente frente a la misma.

Palabras Clave: Derechos Históricos. Constitución Española. Unión Europea.

Euskadi et la Navarre affrontent des défis juridiques qui entrent difficilement dans l'Union Européenne, en vertu du peu de possibilité de participation pour la défense de leurs Droits Historiques. Les Droits Historiques s'exercent et s'utilisent face à l'Etat, car celui-ci les reconnaît et les assume constitutionnellement, et ils devraient également s'exercer face à la UE, car ce même Etat les a reconnus constitutionnellement face à la UE.

Mots Clés: Droits Historiques. Constitution Espagnole. Union Européenne.



1. Eskubide Historikoak Espainiako Konstituzioan. 2. Eskubide Historikoak eta Europako Konstituzioa. 3. Europako Konstituzioa eta legitimitate demokratikoa. 4. Ondorioak.

1. Eskubide Historikoak Espainiako Konstituzioan

Harrigarria da batzuek oraindik ere ikuspegi guztiz desitxuratua ematea Lehendakariaren Proposamenari buruz, eta Euskal Eskubide Historikoekin daukaten oinarriko loturari buruz. Izan ere, proposamen horren indarra eta edukia berretsi egin berri dituzte Eusko Legebiltzarreko eztabaidan, Eskubide Historikoen argitan Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarriak onartu eta babesten ditu eskubide horiek. Are harrigarriagoa da ikuspegi desitxuratu hori bultzatzea espainiar konstituzionalismoko kide ezagunek, baita komunikabide gehienek ere. Bietako bat: edo inondik ere ez dakite Konstituzioak berak zer dioten horri buruz, edo isildu egin nahi dute Euskal Herriaren Eskubide Historiko ezagunen esanahia. Bestela, kontzeptu hori deuseztatu nahian ari baldin badira, Konstituzioa eta Estatutua aldatzea beste erremediorik ez dago. Konstituzioan onarturiko euskal Eskubide Historikoak dira lehendakariaren Proposamenaren zilegitasun demokratiko eta juridikoaren oinarri. Eskubide Historikoetan oinarritzen dira ekonomi Kontzertua eta Ituna (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan), Konstituzioan eta Estatutuan jasoriko euskal autonomiaren zati garrantzitsu bat eta, zergatik ez, bide horretatik iritsiriko Nafarroako autonomia bera ere. Gaur egun, Estatutua aldatzeko ere balio dezake, subiranotasun partekatuko erregimen berri baterako bidean.

Bai Auzitegi Konstituzionalak eta bai lege aditu ospetsuenek ere onartzen dute orain arte iraun duten lege instituzioak direla Eskubide Historikoak, eta oraindik ere horien araberrakoak direla foru lurraldeek Estatuarekin dituzten harreman juridiko publikoetako asko, bai eta lurralde horietako bakoitzaren egiturak eta barne berezitasunak ere. Horren erakusgarri argiak dira ekonomi Kontzertua eta Ituna, Gernikako Estatutuaren barnean indarrean diren zenbait eskuduntza, Hobekuntzaren bidez Nafarroak duen autonomia eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoen erakunde egitura bitxia. Jakina, hori guztia ez da Jainkoaren edo nostalgiaren asmakizuna, Konstituzioa betetze hutsaren emaitza baizik (1. Xed. Geh.). Hortxe dago, bada, lehendakariaren Proposamenaren oinarri izan daitekeen zilegitasun konstituzional bitxia, betiere gizartearen sustengua jasotzen baldin badu, indarkeriarik gabeko egoeran eta gaur egun ezker abertzalearen zati handi bat legez kanpo egoteak eragozten duen normaltasun demokratikoan.

Espainiar konstituzionalismoak lehendakariaren ekimenari buruz dituen aurrejuzguen antzekoak izan zituen Ramon Rubial zenak Konstituzioa egiteko prozesuan. Horren erakusgarri nabarmen baten berri eman zuen V. Tamayok, La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo 1975-1979 liburuan (HAEE, 1994; 617. or). Lan horretan, idazleak hitzez hitz gogoratu du Konstituzioaren historiaren zati bat, Eskubide Historikoei buruzko Konstituzioko 1. Xedapen Gehigarria eztabaidatu zenekoa:

“Bozketa egin zen UCDren 539 zenbakiko boto partikularraren gainean, lehen Xedapen Gehigarriaren testua Diputatuen Kongresutik atera bezala onar zedin, eta halaxe onartu zen: 129 boto alde, 13 boto kontra eta 78 abstentzio. Galdu zen, beraz, Senatuko Batzorde Konstituzioaletik ateratako Xedapen gehigarria; itxaropen handia piztua zuen, baina alferrik, dirudienez.

Monreal senatariak informazioa eskatu zion Presidentetzari Senatuko Mahaiaren erabakiari buruz. Mahaiko presidenteordea Ramón Rubial Cabia sozialista zen orduan, Kontseilu Nagusiko presidentea, eta kideetako bat Jaime Ignacio del Burgo senatari nafarra.

Presidente jauna: Zertarako eskatu du hitza Monreal jaunak?

Monreal Zia jauna: Hain zuzen ere, ordena kontua denentz ez dakidan kontu baterako. Galdera bat egin nahi diot Presidentetzari. Mahaiaren bozketaren emaitza jakitea erraza ez denez, Ganbera honetan lehen ere argibideren bat eman izan da emaitza jakiteko. Gure taldeak jakin nahiko luke zer emaitza izan duen Mahaiaren bozketak.

Presidente jauna: Lau boto alde eta bi abstentzio.

Monreal Zia jauna: Ahal balitz, izen eta guzti.

Presidente jauna: Mahaian partadaide diren UCDko kideek aldeko botoa eman dute, eta Alderdi Sozialistako biak abstenitu egin dira.

Monreal Zia jauna: Eskerrik asko, presidente jauna”.

Herrero de Miñónek eta T.R. Fernándezek zuzen dioten bezala, Eskubide Historikoak ez dira eskuduntza eta erakunde multzo soila, hori baino askoz gehiago baizik. Erakusten dute egiazko kontzeptu politiko-juridikoa badela, oraingo errealitate konstituzionala baino zaharragoa eta, beraz, alde batek bere kabuz ezin indargabetu duena, itun edo kontratu izaera duelako.

Izan ere, Herrero de Miñónen ustez, “Eskubide Historikoei, ezin galduzko eta ezin kenduzko izaera baten oinarri diren aldetik, auto-gobernu erreserba etengabea diren aldetik eta maila guztietan hitzarturiko integrazio modua

diren aldetik”, berezitasun erabatekoa ematen diote Euskal Herriko eta Nafarroako autonomiari, beste autonomia erkidegoen aldean. Horren ondorioz, “Eskubide Historikoek funtzio bakarra dute: multzo baten barnean bereizgarri bat adieraztea eta halaxe antolatzea. Laplaceren nebuloza bezala, ez dira iraganekoak, etorkizunekoak baizik”. Kontua ez da oroimin politikoa: indarrean den arau juridiko bat da, eta, alde horretatik, etorkizunean balio izateko modukoa. Lehendakariak bere egin du proposaturiko testuetan. Auzitegi Konstituzionalak berak ere antzera jokatu zuen Eskubide Historikoei buruzko 88/1993 Epaian.

Hori guztia gutxi balitz, eta hau funtsezkoa da Ibarretxeren Proposamenean, Euskal Estatutuko Xedapen Gehigarriak eta Nafarroako Hobekuntzako arau horrek berak –biak ere Gorteen onarturiko Lege Organikoak– argi eta garbi uzten dute Eskubide Historikoen titularrak euskal eta nafar herriak direla, oro har. Gainera, garbi uzten dute Konstituzioko Xedapen Gehigarrian aipaturiko onarpena eta etorkizunerako bokazioa, eskubide horiek gaurkotzeko bidea ematen baitute, gaur egungo autonomiari kalte egin gabe. Eskubide Historikoei buruzko klausulak hor dirau, eta, beraz, pentsarazten digu aurrerago gaurkotu daitezkeela. Ikuspegi horretatik, Estatutua aldatzeko proposamena izan liteke Euskal Herriaren Eskubide Historikoen egiazko gaurkotzea, subiranokidetasun estatus berri baten bila, Michael Keating aditu handiaren hitzetan.

Besterik da ados gauden lehendakariaren Proposamenarekin eta Konstituzioak onartzen dituen Eskubide Historikoein: gogokoak, inork ez dauzka zertan izan. Baina gauza bat da gogokoak ez izatea, eta beste bat badiren ere zalantzan jarzea: batetik bestera alde handia dago, eta gaur egun ezin da batetik bestera pasatu Konstituzioa bera aldatu edo indargabetu gabe. Eskubide Historikoak ez dira oroiminaren edo lege mitologiaren ondorio, baizik eta indarrean den arau juridikoa, eta, indarrean den guztia bezala, gizartearen sustenguz eta Konstituzioaren babesean aurrera egin nahi du, etorkizunerantz. Bakea eta legez kanporatu dituztenen parte-hartzea besterik ez da falta. Gainerakoa, kultura eta zilegitasun demokratikoari loturiko kontua da.

2. Eskubide historikoak eta Europako Konstituzioa

Europako Konstituzioaren prozesuak auktorea paregabea eskaintzen dio Espainiari Euskal Herriaren eskubide historikoen egoera konplikatua aztertu eta konpontzeko, europar zuzenbidea egin, garatu eta aplikatzeari dagokionez; eta batez ere Europako Konstituzioaren Proiektuari begira –bertako 2. eta 5. artikulua oinarritzekoak dira kontu honetan–.

Europako Konstituzioaren gaia malgutasunez interpretatzeko bidea ematen du, nahiz eta malgutasun hori estatu kideetan aplikatzerako garaian Espainiaren kasuan ez den hain garbi ikusten. Horrela, saihestu egiten da Konstituzioa bera, izan ere, Konstituzioak giza historia, gizarte eta justizia arloko testuingurua kontuan hartuta eta onartuta esaten baitu eskubideak babestu eta errespetatzen dituela, ederki jakinda zein diren gure sistema Europar Batasuneko berehalako errealitate egokitzeko beharrezkoak –gaur egun Europako Konstituzioaren da Europar Batasunaren ordezkaria–.

Hori dela-eta, Konstituzioko lehenengo xedapen gehigarria bera da Europako Konstituzioaren Proiektuan Euskal Herriaren foralatasuna juridikoki bermatu behar duena. Hain zuzen ere, Europako Konstituzioak berak aukera bikaina eskaintzen du foralatasun horrek indarrean jarrai dezan. Europako itunen izaera integratzaileak, Konstituzioak eta bere izaera juridiko bereziak interpretazio hori erabat ahalbidetzen dute. Europar Batasunaren Ituneko 6.3. artikulua arabera –Konstituzioaren Proiektuko 5. artikulua–, “Batasuneko estatuen nazio-nortasuna errespetatuko du Batasunak”. Oraindik argiago geratzen da hori Konstituzioko 5. artikuluan. Arau horiek, Europako Batasunaren baitan estatu bakoitzeko berezitasunak gorde daitezela agintzeaz gain, hainbat estatu kideren barruko berezitasun nazionalak benetan eta eraginkortasunez onar daitezela ere agintzen dute. Bereztasun horien arteko nabarmenetako bat foru-izaerak Euskadi eta Nafarroari ematen dien desberdintasuna da, Konstituzioak onartzen duena, hain zuzen ere.

Desberdintasunak konstituzionalki aitortzeko indarrean egon eta paktatua den tresnarik ez izan arren –horiek dira giza eskubideen ezaugarriak–, gure testuinguruan, Alemania, Austria eta Belgikaren kasuek, bakoitzak bere konstituzioaren eraberritzearekin, erakusten digute batez ere borondate politikoarekin aukerak daudela kontu honetan. Horretarako, giza eskubide horiek daukaten garrantziaren irakurketa politiko egoki eta proportzionala egin behar da, eta administrazio zentralak irakurketa hori bere egin eta erabili behar du Europako instituzioetan, gaur egun Europar Batasuna egiten ari den konstituzio prozesuan. Baldintza hori bete da estatu kide batzuetan: Alemanian, Austriar eta Belgikan. Euskadi eta Nafarroaren kasuan, bi horien eskuduntza-titulartasuna eta horietatik eratorritako zenbait aplikazio berezi –pizgarri fiskalak, esate baterako– zenbaitetan Europar Batasunak salatu izan ditu konstituzionalki onartutako zenbait giza eskubide urratzen dituztelako. Estatu kideen identitate nazionalarekiko errespetuaren printzipioak (EBren Ituneko 6.3. artikulua eta Europako Konstituzioko 5. artikulua) adierazten du beharrezkoa eta bidezkoa dela Europako Konstituzioaren aurrean Batasunaren barruko errealitate konstituzionaleko giza eskubideak egoki eta benetan defendatzea.

Baina hori baino garrantzitsuagoa da Europako Konstituzioaren Proiektuko 2. artikulua, EBren balore eta printzipioei dagokiena: “Batasunaren oinarrizko baloreak giza duintasuna, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbideko estatua eta giza eskubideekiko errespetua dira. Balore horiek estatu kide guztienak ere badira, aniztasuna, tolerantzia, justizia, elkartasuna eta diskriminaziorik eza ezaugarritzat dituen gizar-tean”. Esan beharrik ere ez dago Batasuneko kide berri izateko hautagaiek balore horiek errespetatu beharko dituztela, eta baita gaur egungo estatu kideek ere, dauzkaten barruko arazoak alde batera utzita.

3. Europako Konstituzioa eta legitimitate demokratikoa

Europako Batasuneko egituraketa historiko, instituzional eta konpetenziala sakon ari da aldatzen onartu berri den Europako Konstituzioaren eraginez. Eta kontu hori ez da inondik inora hutsala, aintzat hartzen badugu EBk ez duela benetako Administrazio propiorik; Estatu kideen beharra du lurralde bakoitzean bere politika eta arauak beteazterazteko. Aipatu berri dugun alderdi horrek, sarritan ahaztu egiten dugu, baina zaildu egiten du egoera, eta modu nabarmenean, baita Zuzenbide Komunitarioa aplikatzea ere. European apurka-apurka integrazteko bide zail horretan, oso urrats baikorra izan da kideen kopurua handitzea, baina Europako Parlamenturako hauteskundeetan gertatu den izugarritzko abstentzioa bestelakoa dela esan beharrean gaude, deslegitimazioaren eta herritarren parte-hartze eskasaren adibide izan baitira. Eta laster beste arazo bat etorriko zaigu: EBko Konstituzioaren gaineko erreferendumaz ari naiz. Aurretik ikusita bederen, emaitzak askotarikoa izango dira, eta horri gehitu behar zaio Erresuma Batuan Konstituzioak pizten duen gorrotoa.

EBren barruan subiranotasun kontzeptu klasikoaren oinarrizko aldaketa egin bada, hots, subiranotasunaren zati handi bat nazioz gaindiko instantzia baten mesedean galdu bada, Zuzenbide propioa duen instantzia alegia —eragin-kortasun zuzenarekin, nagusitasunarekin eta babes juridikzionalarekin—, argi dago Batasuneko gobernuen politikak bat etorri behar duela Europako Konstituzioak islatzen duen integrazio espirituarekin. Arazoa, baina, honakoa da: subiranotasunaren mito hori ez da guztiz mamitzen Europako testuinguruan; nahiz eta alor batzuetan aurrerapen nabarmenak egin, herriaren subiranotasun eskubidearen kontra ere jo da hainbatetan, herritarrei galdetu gabe, kasuan kasuko gobernuak izan baitute subiranotasun hori. Eta hori guztia, egin berri diren Europako hauteskundeetan izan den abstentzioa ez aipatzearen. Azaleratu diren faktore garrantzitsu horiek funtsezko aldaketak eragin dituzte subiranotasun klasikoaren kon-

zeptuan, bai kanpora begira, bai EBko estatu kideei begira. Ikuspegi hori erabat ezberdina da barrualdera begira, entitate azpiestatalen kasuan. EBko «subiranotasun» berria estatu kideen artean banatzen da, eta barruko subiranotasunei dago-kienez, gutxiago edo gehiago banatzen dira estatu kide dezentralizatu bakoitzaren barruan. Bitarte horretan, Austria, Belgika eta Alemania izan ezik —horiek konstituzio aldaketekin eta behar ziren barne akordioekin egin baitote aurre gai horri—, Espainiak gai hori konpondu gabe jarraitzen du bere etxe barruan. Europako Konstituzioa estatu askoren borondate orokor batuen ondorio gisa hartzeak —eta kontuan izan behar dugu estatuen barne nabardurak tokian tokiko Konstituzioak biltzen dituela— zera eragin behar luke nire ustez: borondate demokratikoen batze plurala. Hori estatu bakoitzean barneratuko litzateke bakoitzaren konstituzio mailaren arabera, baita estatuetatik kanpora ere, EBko konstituzio mailaren arabera. Aipatutako fenomeno hau egoki bideratzeko eta praktikarekin bat datorren benetako dimentsioa emateko, Oinarrizko Eskubideen erakundea har dezakegu eredutzat, nahitaezko betebehartzat joz EBn egoteko, baita beharrezko ezaugarri modura estatu kide bakoitzarentzat ere. Ezin da ahaztu gai horren gainean EBko Hitzarmeneko 6.1. artikulua dioena: “Batasunaren oinarri dira askatasuna, demokrazia eta giza eskubideekiko errespetua, baita oinarrizko askatasuna eta Zuzenbide Estatua ere; estatu kide guztietan berdinak diren printzipioak, alegia”. Kontu hori funtsezkoa da oso EBk onartzen badu bere antolamenduko nukleorik gogorrena, oinarrizko eskubideak babestea, alegia, modu zuzenean eta bateratuan zaintzea, estatu kideen ondare komuna den aldetik.

Hori da egun, ziurrenik, edozein sistema juridikoren alderdi garrantzizkoena, eta ziur esan daiteke estatu bakoitzaren subiranotasun konstituzionalari zuzenen atxikitzen zaiola; banakoaren eskubide eran agertzen dira, eta zuzenean erabil daitezke administrazio arloan edota juridikzionalan. Hitzarmen konstituzionalen batura eskubideen onarpen prozedura nahikotzat jotzen da esparru komunitarioan, nahiz eta, esan izan den moduan, EBk ez eduki oraindik tankera horretako oinarrizko obligazioak zuzenean betearazteko bide eta tresnak. Badago, beraz, printzipio bat, edo hobe esanda, elkarrenganako konfiantza konstituzional uste bat, barneko maila bakoitzean egiten den oinarrizko eskubideen defentsari dago-kionez. Eta hori horrela bada, gure sistema juridikoen gai garrantzitsuan, elkarrenganako konfiantza uste berak bermatu beharko luke barne maila bakoitzean gutxieneko leialtasun instituzionala; izan ere, European integrazteko prozesuak gutxieneko leialtasun bat eskatzen dio estatu kide bakoitzari. Fenomeno hori inongo traumarik gabe egin da oinarrizko eskubideen gaian, baina hasiera batean distantzia handia nabari zen, edo erabateko banaketa, eta gaur egun askoz ere elkarrenganako eragin handiagoa sumatzen da

Zuzenbidearen Printzipio Orokorren aplikazioari esker, eta baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziari esker edo Europako Batasuneko Justizia Auzitegiari (EBJA) esker ere. Tradizio konstituzional bateratu bat izateak egin du posible oinarrizko eskubideen alorrean aurrera egitea. Izan ere, barneko auzitegi konstituzionalen eta EBJAren arteko erabateko banaketa teorikotik eragin handiko egoera batera pasatu gara giza eskubideen alorrean. Eskubideak eratzeko garaian, batak bestearekiko edo elkarrenganako gero eta eragin handiago hori, bi foroetan, Zuzenbidearen Printzipio Nagusiak aplikatuta egin da; hori erabili da Zuzenbide Komunitarioaren inguruko gaien zutabe interpretatibo gisa. Gisa horretan, komunitate mailan ez izateak hasiera batean oinarrizko eskubideez positibizatutako katalogo bat –EBren Hitzarmeneko artikulua haiez egiten duen onarpena aparte utzita–, ez du eragotzi EBk horiek errespetatzeko helburua ezartzetik. Beraz, oinarrizko eskubideen gain ukaezina bada barneko antolamendu konstituzionalaren garrantzia bere postulatu ugariak komunitateko eskubideen beste babes-iturri bat bezala begiesteko garaian, erakunde komunitarioek, estatu kideetako Administrazio zentralak eta EBJAk berak etorkizunean, saiatu egin behar dute argi mugatzen noraino heltzen diren estatu bakoitzaren –ez soilik Alemania-Frantzia ardatzaren– tradizio konstituzionalak. Horrela lortuko da askok behin betiko nahi duten Europako integrazio konstituzional zail hori, baina horretarako Europako gizartearen babes handiagoa beharko dute. Hori horrela ez bada, beldur naiz ez ote duen jasan beharko proposatutako testuaren legitimitateak ezusteko kolpe bat baino gehiago.

4. Ondorioak

Eskubide Historikoen adibideak iradoki dit Zuzenbidea ezin dela gehiago erabili hain baldar, mendeetako euskal gatazka konpondu ezina baitakar. Bideak irekita daudela erakusten digute Europako bertze kasuek argi eta garbi. Horretarako, zuzenbide arlo osoak benetan dira erabilgarriak.

Argi bide dago ez dagoela helburu politikorik, den funtsezkoena izanik ere, bere-berez xede denik. Pertsona gisa eta herri gisa dugun izateak erakusten duenez, beharrezkoak gara prozesu batean, eta inork ezin du aurreratu prozesu horretan zer gertatuko den, arian-arian jartzen baitira oinarriak. Horrek esan nahi du ez oraingo erregimenaren segida, ez libre erabakitze eskubidea eta ez independentzia ezin direla izan, bere-berez, prozesu jakin baten azken helburu. Prozesu politikoa demokratikoak, erregimen totalitarioetan gertatzen ez den bezala, bizirik daude beti, zabalik; etengabe aldatzen ari dira; hor benetan agertzen dira behin eta berriro eskubide historikoen eraginkortasunak. Horixe da, hain zuzen,

demokrazia guztien muina: bidea beti zabalik egoitea hitz egiteko, negoziatzeko eta gizarte-liskar mota guztiak konpontzeko. II. Mundu Gerra ondoren erabiliriko konponbide juridiko-politikoek ez dute balio orain nazioartean den egoeran, eta konstituzioek ez dituzte konponbideak betiko ematen orain ere baditugun barne liskarretarako. Errealitate demokratikoaren parte da bere burua aldatzeko premia gorria, egoera berrietara egokitzekoa eta, bistan denez, beste ezeren gainetik subiranotasun bakarria dutenei galdetzekoa: herri-tarrei galdetzekoa alegia. Hemen gainetik aipatu dugun sare korapilatsuan Zuzenbidea funtsezkoa da, eta euskal eskubide historikoak ere bai.

Izan ere, Zuzenbidea da gatazkak konpontzeko tresna nagusia; horretarako erabiltzen dituen formulak ez dira denak inposizio kutsukoak: borondate eta interes kontrajarriak ezkontzeko modua ere bada. Hori argi eta garbi ikusten da Zuzenbideak gizarte harremanak arautzen dituen alor guztietan: familiaren munduan, pertsona juridikoen harremanetan, merkatuaren eta merkataritza harremanen araudian eta lan harremanetan, besteak beste. Alor horietan eta beste hainbatetan, Zuzenbideak bakea sortu behar du, gatazka eta lege arazoak konpondu. Legediak berak garaizten du, teoria formalean behintzat, bere tresnak alderdikeriaz erabiltzea arazo bat luzatzeko. Alderantziz: edozein interpretazio-irizpide, konponbideak bilatzeko da, alde batzuk gogobetetzeko eta justizia betetzeko. Halaxe da Zuzenbide Konstituzionalean ere, eta hortxe dago kokatua oraingo euskal gatazka, Espainiako eta Frantziako Konstituzioen mailan eta Europako Batasunaren esparruan maila makro-konstituzionalean. Beste horrenbeste esan dezakegu Nazioarteko Zuzenbideari buruz; Nazioarteko Zuzenbidea ezinbestekoa da zenbait gairi heltzeko; besteak beste, libre erabakitze eskubidea eta errealitate berriak –diren motakoak direla– nazioartean aitortzea.

Dena dela, interpretazio bidegabeak egiten dira oraindik ere alor horietan guztietan; hala, askotan, sistema itxuragabe bat balitz bezala deskribatzen dute Zuzenbidea, arazoak konpontzeko inolako ezaugarriarik edo helbururik ez balu bezala. Zenbait estatu eta gobernurentzat, arau multzo geldo hutsa da legedia: bere hartan du azalpen politikoa eta soziala, eta ez diote erreparatzen politikan, lurraldean eta gizartean den egoerari, ez eta egoerak berak izan duen bilakaerari. Ikuspuntu horrek urratu egiten ditu legeak interpretatzeko jarraibide oinarrizkoenak. Zuzenbidea ez da helbururik eta loturarik gabeko arau batzuen multzo itxuragabea, eta ezin da horrela balitz bezala interpretatu; aitzitik, arau bakoitzak, araudi bakoitzak, egiteko bat du: gatazkak konpontzea eta gizarte-bakea lantzea. Bere buruarentzat nahikoa den egitura geldoa ere ez da Zuzenbidea; aitzitik, indar dinamikoa da Zuzenbidea, eta indar dinamiko hori, baketze helburuen zerbitzuan, egokitu egiten da errealitate sozial, historiko eta politikotara,

eta, nola ez, denboran izaniko aldaketetara. Euskal auzian ezin argiago dago zein den gogoeta hauen guztien ondorio praktikoa. Bai Zuzenbideak eta bai sen onak erakusten dute euskal arazoa ez dela, gaur egun, euskal bakarrik.

Oraingo Zuzenbideak konponbide posibilistak eta azkarrak ematen ditu gatazka mota guztietan, betiere arauen irizpide interpretatibo eta teleologikoak egokiro erabiliz gero. Horien artean, euskal eskubide historikoak eta beraien egokipe-na Europako Batasunean adibide garbia direla. Horrek esan nahi du Zuzenbidea ez dela kasuala edo geldoa, balio eta helbururik gabea. Zuzenbidea etengabe agertzen da harreman sozial eta politikoetan, eta harreman horien bitartez egokitu beharra dauka, bere indar guztia erakutsi beharra. Ikuspegi horretatik begiraturik, horixe da "Zuzenbidearen Indarra", Ihering-ek aldarrikatua; hain zuzen, gizarteak ematen dion indarra, zernahi gatazka konpontzeko modu funtsezko eta argia izan dadin. Zuzenbideak, oinarri horiek ahazturik erabiltzen bada, erabat galtzen du balioa eta indarra, eta izugarri ahultzen da, legelarien mundua kanpotik baldintzatzen duten faktoreen aldean. Zuzenbideak eutsi beharra dauka; bere helburuak zaindu behar ditu botere ekonomikotik eta politikotik, manipulaziotik eta botere erlijiosotik. Hala egin ezean, ez da nahikoa izango alor horietan sortzen diren gatazkek konpontzeko. Hori egiteko zilegitasuna, hain zuzen, demokraziak berak ematen dio, elkarrekin bizitzeko eta etengabe eraikitzeko modu irekia den aldetik. Zuzenbideak kanpo erasoei eusten ez badie, sistema kolokan geratzen da, eta gizarteak mesfidantzaz hartzen ditu haren funtzionamendua eta zilegitasuna. Are gehiago: Zuzenbideari kanpoko faktoreak nagusitzen bazaizkio, sistema demokratikoa desegin egiten da eta beste gobernu eta bizikidetzara mota batzuk sortzen dira, gizarteak bake sozialaren bila egiten duen bidean.

Bibliografia

- AJA FERNÁNDEZ, E. El Estado autonómico. Federalismo y hechos diferenciales, Madrid: Alianza editorial, 1999.
- ALDECOA LUZARRAGA, F. "En busca de un pacto político a favor de la acción exterior y comunitaria de las Comunidades Autónomas". In: La acción exterior y comunitaria de los Länder, Regiones, Cantones y Comunidades Autónomas, I. liburukia, HAEE/IVAP, 1996.
- ALLI ARANGUREN, J.C. "Paz y Fueros. Los Derechos Históricos como instrumentos de pacificación". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.
- ARRIETA ALBERDI, J. "Las imágenes de los derechos históricos: un estado de la cuestión". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.
- BEDJAOUI, M. In: COT J.P.; Pellet, A. (ed.). La Charte des Nations Unies, 2. ed., Paris: Economica, 1991.
- BELAUSTEGUIGOITIA, R. Reparto de tierras y producción nacional, Madrid: Espasa Calpé, 1932.
- BENGOTXEA CABALLERO, J.R. "El futuro de Euskadi y el futuro de Europa. ¿Quién tiene miedo de Europa?". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- BOGDANOR, V. "Federalism and the nature of the European Union". In: Whose Europe? National models and the Constitution of the European Union, Oxford: Oxford University Press, 2003.
- CABALLERO HARRIET, J. Temas pretexto para una reflexión, Donostia, 1993.
- CAÑO MORENO, J. "Los derechos históricos en el Siglo XX". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.
- CASTELLS ARTECHE, J.M. "Europa-Euskal Herria". In: Euskonews & Media, 31. zkia., <http://www.euskonews.com>
- CLAVERO SALVADOR, B. "Derechos humanos (individuales) y derechos históricos (colectivos)". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.
- COELLO MARTÍN, C. "La Propuesta del Presidente Ibarretxe: ¿Del etnos al demos? Hacia un nacionalismo performativo". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- ESARTE MUNIAIN, P. Navarra 1512-1530, Iruñea: Pamiela, 2001.
- EZEIZABARRENA SÁENZ, X. "Brief notes on the Historical Rights of the Basque Country and Navarre with regard to Community Law". In: IUS FORI-Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco, 1. zkia., lehen seiñilabetekoa, 1999.
- EZEIZABARRENA SÁENZ, X. "Derechos Históricos y Derecho Comunitario ante la Propuesta del Lehendakari". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- EZEIZABARRENA SÁENZ, X. Los Derechos Históricos de Euskadi y Navarra ante el Derecho Comunitario, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2003.
- EZEIZABARRENA SÁENZ, X. "Europe & Co-sovereignty". In: Oxford Magazine, 226. zkia., Oxford, 2004ko maiatzak.
- GAGNON, A. Québec y el federalismo canadiense, Madrid: CSIC, 1998.
- GAY MONTALVO, E. "La integración europea y las nacionalidades históricas". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.

- GÓMEZ ISA, F. "El derecho de autodeterminación en el Derecho Internacional contemporáneo". In: Derecho de autodeterminación y realidad vasca, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurilaritza, 2002.
- GROS ESPIELL, H. Hermes aldizkaria, 2003ko otsaila.
- HERRERO DE MIÑÓN, M. "La titularidad de los Derechos Históricos vascos". In: Revista de Estudios Políticos, 58. zkia., 1987.
- HERRERO DE MIÑÓN, M.; LLUCH, E. "Constitucionalismo útil". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.
- HERRERO DE MIÑÓN, M. "Autodeterminación y Derechos Históricos". In: Derechos Históricos y Constitucionalismo útil, Bilbo: BBV Fundazioa, 2000.
- HERRERO DE MIÑÓN, M. Derechos Históricos y Constitución, Madril: Taurus, 2000.
- HERRERO DE MIÑÓN, M. El valor de la Constitución, Bartzelona: Crítica, 2003.
- HERRERO DE MIÑÓN, M. "España y Vasconia: presente y futuro (consideraciones en torno al Plan Ibarretxe)". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- IRIONDO ARANA, X. "Europa y Euskal Herria: luces y sombras". In: Euskonews & Media, 29. zkia., <http://www.euskonews.com>
- JÁUREGUI BERECIARTU, G. "La actividad internacional de la CAPV. La implicación europea". In: Euskonews & Media, 36. zkia., <http://www.euskonews.com>
- JÁUREGUI BERECIARTU, G. "La globalización y sus efectos en el principio de soberanía". In: Castells, J.M.; Iriondo, X. (koor.) La institucionalización jurídica y política de Vasconia, Donostia: Eusko Ikaskuntza, Lankidetzan Saila, 1997.
- JÁUREGUI BERECIARTU, G. Los nacionalismos minoritarios y la Unión Europea. ¿Utopía o ucronía?, Bartzelona: Ariel, 1997.
- JÁUREGUI BERECIARTU, G. "El Estado, la Soberanía y la Constitución ante la Unión Europea". In: Revista Vasca de Administración Pública, 53. zkia., II. liburukia, 1999ko urtarrila-apirila.
- JURADO, E. "Estonia, una experiencia independentista". In: Claves de Razón Práctica, 138. zkia., 2003ko abendua.
- KEATING, M. "Plurinacional democracy and the European order". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- KEATING, M. "The Minority Nations of Spain and European Integration. A new framework for autonomy?". In: Spanish Cultural Studies, 1.1, 2000.
- KEATING, M. "Self-determination, multinational states and the transnational order". In: M. van der Valt van Praage; O. Seroo (ed.), The Implementation of the Right to Self-determination as a Contribution to Conflict Resolution, Bartzelona: UNESCO Catalunya, 1998.
- KEATING, M. "So Many Nations, So Few States. Accommodating Minority Nationalism in the Global Era". In: Gagnon, A.G.; Tully, J. (ed.), Struggles for Recognition in Multinational Societies, Cambridge: Cambridge University Press, 2001.
- KEATING, M. "Nations without States: minority nationalism in the global era". In: Ferrán Requejo (ed.), Democracy and National Pluralism, Cambridge: Cambridge University Press, 2001.
- KEATING, M. "Europe's Changing Political Landscape: Territorial Restructuring and New Forms of Government". In: Paul Beaumont, Carole Lyons; Neil Walker (ed.), Convergence and Divergence in European Public Law, Hart, 2002.
- LACASTA-ZABALZA, J.I. España uniforme, Iruñea: Pamiela, 1998.
- LASAGABASTER HERRARTE, I. "La experiencia estatutaria y la vía soberanista". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- LESTER, N. Le Québec vers l'indépendance, Documentation Française, 1978.
- LETAMENDÍA BELZUNCE, F. (koor.). Nacionalidades y Regiones en la Unión Europea, Oñati: HAEE/IVAP, 1999.
- LOCKE, J. Segundo tratado sobre el gobierno civil, Madril: Alianza editorial, 1994.
- LOUGHLIN, J. "The regional question, subsidiarity and the future of Europe". In: Whose Europe? National models and the Constitution of the European Union, Oxford: Oxford University Press, 2003.
- LOPERENA ROTA, D. "Navarra y el nacionalismo compatible". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- MONREAL ZIA, G. "La base foral del Plan del Lehendakari Ibarretxe". In: Jornadas de Estudio sobre la Propuesta Política para la convivencia del Lehendakari Ibarretxe, Oñati: HAEE/IVAP, 2003.
- NICOLAIDIS, K.; WEATHERILL (ed.), Whose Europe? National models and the Constitution of the European Union, Oxford: Oxford University Press, 2003.
- NIETO ARIZMENDIARRIETA, E. "Reflexiones sobre el concepto de Derechos Históricos". In: Revista Vasca de Administración Pública, 54. zkia., 1999.
- ORTUETA AZKUENAGA, A. Nabarra. Estado político de Vasconia, Iruñea: Pamiela, 2003.
- RANJEVA, R. "Peoples and National Liberation Movements". In: Bedjaoui, M. (ed.), International

Law: Achievements and Prospects, Paris-Dordrecht: Unesco-Nijhoff, 1991.

- ROUSSEAU, J.J. Del contrato social, Madrid: Alianza editorial, 1991.
- SORAUREN, M. Historia de Navarra, el Estado vasco, Iruñea: Pamiela, 1999.
- SOROETA LICERAS, J. El Derecho Internacional y el Derecho interno canadiense ante el desafío de Québec. Giza Eskubideen Ikastaroak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2002.
- TAMAYO SALABERRIA, V. La autonomía vasca contemporánea. Foralidad y estatutismo 1975-1979, Oñati: HAEE/IVAP, 1994.
- URZAINQUI, T.; OLAIZOLA, J.M. La Navarra marítima, Iruñea: Pamiela, 1998.
- URZAINQUI MINA, T. Recuperación del Estado propio, Iruñea: Nabarralde, 2002.
- URZAINQUI MINA, T. Navarra sin fronteras impuestas, Iruñea: Pamiela, 2002.
- URZAINQUI MINA, T. Navarra Estado europeo, Iruñea: Pamiela, 2004.
- WOEHLING, J. "The Quebec secession reference: pitfalls ahead for the federal government". In: Canada-Watch, 6. zkia., 1997ko urria.
- WOEHLING, J. "El juicio del Tribunal Supremo de Canadá sobre la eventual secesión de Québec". In: Revista Vasca de Administración Pública, 54. zkia., 1999.
- WOEHLING, J. "The Supreme Court's Ruling on Quebec's Secession: Legality and Legitimacy Reconciled by a Return to Constitutional First Principles". In: Hugh Mellon; Martin Westmacott (ed.) Political Dispute and Judicial Review, Scarborough: Nelson, 2000.
- ZZ.EE. Derecho de autodeterminación y realidad vasca, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, 2003.